

Lanbidearen egoerak kezkatuta, EIZIEk euskal interpretazioen lehen diagnostikoa egin du

Euskara lan-hizkuntza duten interpretazioen profila zehaztu nahi izan du elkarteak (generoa, adina, prestakuntza, lantokia, lan-erregimena...), eta haien beharrak identifikatu, lan-baldintza duinak aldarrikatzeko ez ezik, interpretazioaren figura eta jarduna hobeto ezagutzeko ere.



Azkenaldi honetan, mehatxu askori egin behar izan dio aurre interpretazioen lanbideak. Azkena, Espainiako Senatuan hizkuntza koofizialetarako interpretazio-eta transkripzio-zerbitzuaren lizitazioa izan da. Bai Kongresuko eta bai Senatuko lizitazioen pleguek kezkatzeko moduan kaskartu dituzte interpretazioen lan-baldintzak: tarifak merkatukoak baino askoz baxuagoak izateaz gain, interpretazioek doan ere egin beharko dituzte zenbait lan.

Estatuan ez ezik, Euskal Herrian ere ohikoak dira interpretazioen lan-baldintzak auzitan jartzen dituzten gertakariak. Esate baterako, askotan, interpretazioek ez dituzte (garaiz) jasotzen hizlariak irakurtzen dituzten testuak –horietako asko datuz josiak, oso espezializatuak...–, nahiz eta behin eta berriz eskatu alde aurretik landu ahal izateko eta lana behar bezala egin ahal izateko.

Elkarteko interpreteak kezkatuta dabilta, halako praktikak gero eta sarriago gertatzen ari dira eta. Horretaz jabeturik, EIZIEk euskal interpreteen lan-baldintzen diagnostikoa egitea erabaki zuen, galdetegi batean oinarrituta, interpreteen profila zehaztu eta profesionalek hautematen dituzten beharrak identifikatzeko.

Lehen aldia da horrelako lan bat egiten dena. Helburua ez da izan errolda exhaustibo bat osatzea, baina, hala ere, oso datu interesgarriak eman ditu, lan-baldintzekin zerkusi zuzena duten hainbat gairen inguruan galdetu baitzaie euskal interpreteei: interpretazio-lana egiteko azpiegitura, hizkuntza-konbinazioa, tarifak, dokumentazioa aurretiaz jasotzea, itzultzaile automatikoaren erabilera...

Konferentzietako Interpreteen Nazioarteko Egunean (azaroaren 20an) eman du argitara diagnostikoa EIZIEk, eguna ospatzeko. Izan ere, azterketan bildutako datuei esker, orain hobeto ezagut ditzakegu euskararen normalizaziorako funtsezkoak diren bitartekarion profilak eta beharrak, eta, era berean, gizarteari hobeto azal diezaiokegu interpreteak nolakoak diren, zer egiten duten eta zer-nolako zailtasunak izan ohi dituzten beren eguneroko lanean.

Ikus:

- Ondorioen laburpena, ohar honen amaieran.
- Diagnostikoa osorik, hemen: https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/interpreteen_diagnostikoa_2024.pdf

Harremanetarako:

Claudia Torralba Rubinos - claudiatorralbarubinos@gmail.com - 617057234

Diagnostikoaren ondorioak

Egungo euskal interpreteen profila

- Aktibo dauden interpreteen batez besteko adina 45 urtekoa da, gehienak emakumeak dira eta erdiak baino gehiagok 10 urteko lan-esperientziatik gora daukate.
- Gehienek unibertsitate-mailako ikasketak dituzte, nahiz eta erdiek dituzten, gutxi gorabehera, itzulpengintzako eta interpretazioko ikasketa espezifikoak.
- Euskal Herri osoko interpreteak barne hartu nahi izan badira ere, EA Eren nagusitasuna agerikoa da, jaiolekuari eta lantokiari, biei, erreparatuta.
- Interprete gehienek beste lan batzuekin uztartzen dute interpretazioa. Itzulpena eta zuzenketa dira interpretazioarekin batera egiten diren jarduerarik ohikoenak, baina beste batzuk ere badaude: irakaskuntza, teknikari-lanak, lokalizazioa...

Interprete autonomoak

- Arlo askotan aritzen dira lanean, batez ere erakunde publikoetan, udaletan eta konferentzia pribatuetan.
- Gehienentzat lanerako daukaten azpiegitura egokia da, nahiz eta maiz sistema teknikoa zaharkituta egoten den. Hala ere, kabinak ez dira irisgarriak izaten, komunak batzuetan urruti egoten dira eta konfort termiko falta ohiko arazoa da.
- Urrutiko edo onlineko interpretazioa interprete gehienek errealitatearen parte da.
- Tarifak arazo-iturri izaten dira, eta interpreteen erdiek aitortu dute inoiz tarifak merketu behar izan dituztela lanak ez galtzeko.
- Hizkuntza-norabideari erreparatuta, interprete autonomoen erantzunak erakusten dute ohikoa dela interpretazio-lana norabide bietan egitea; hau da, euskaratik erdarara eta erdaratik euskarara.
- Dokumentazioa aurretiaz ez jasotzea arazo-iturri handia da interprete autonomo guztientzat. Jasotzen dutenean, normalean gutxienez egun bat lehenago jasotzen dute, baina maiz ez dute dokumentu bakar bat ere jasotzen. Denbora nahikoa badute, gehienek itzultzaile automatikoaren bidez itzultzen dituzte dokumentuok.

Hirugarrenen konturako interpreteak

- Hirugarrenen konturako interpreteen kasuan, aniztasun handia dago lanpostuen izendapenei eta kategoriei dagokienez.
- Gehienek uste dute beren lan-baldintzak egokiak edo onak direla. Azpiegitura ere halaxe baloratzen dute. Kabinetan egiten dute lan, baina badaude interpretazio-lana aparteko geletan egiten duten interprete batzuk ere. Aparteko geletan aritzen direnen artean, erdiek uste dute gela horrek duintasunez lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen dituela, baina beste erdiek ez.

Kabinetan lan egiten dutenen artean, gehienek erantzun dute kabina horiek behar bezala intsonorizatuta daudela eta irisgarriak direla. Komunak, oro har, gertu egoten dira eta konfort termikoa egokia da.

- Hirugarrenen konturako interpreteek normalean ez dute urrutiko interpretaziorik egiten.
- Interpreteen erdiek-edo nabaritu dute beren erakundeetan itzulpen, transkripzio edo interpretazio automatikoa ezartzeko interesa.
- Hizkuntza-norabideari erreparatuta, hirugarrenen konturako interpreteek ez dute inoiz norabide bietan, hau da, euskaratik erdarara eta erdaratik euskarara lan egiten, eta, oro har, euskaratik gaztelaniara bakarrik egiten dute lan.
- Dokumentazioa aurretiaz ez jasotzea arazoa da hirugarrenen konturako interprete gehientzat, baina ez guztientzat. Gehienetan, egunean bertan jasotzen dituzte dokumentuak, eta maiz ez dute dokumenturik jasotzen. Normalean itzuli egiten dituzte dokumentuok.
- Galdetegiari erantzun dioten interpreteen erdiek baino gehiagok beren lan-ordutegietatik kanpo prestatu behar izaten dituzte interpretazio-saioak. Lan-ordutegitik kanpo orduak sartzen dituztenen erdiek erraztasunak dituzte gero ordu horiek hartzeko, baina beste erdiek ez.

Horrenbestez, agerian geratu da euskal interpreteen profilak, lan-baldintzak eta arazoak askotarikoak direla, eta kasuan kasuko neurriak hartu beharko liratekeela arazo puntualeri aurre egiteko. Dena den, badirudi dokumentuak –eta, batez ere, irakurri egingo direnak– aurretiaz ez bidaltzeko joera dagoela, bai autonomoek eta bai hirugarrenen konturako interpreteek salatu dutenez. Hori arazo orokortua da, eta zuzenean eragin diezaioke interpretazio-lanaren kalitateari, batzuetan, besterik gabe, ezinezkoa delako abiadura handian irakurria izaten ari den euskarazko testu bat gaztelaniara aldi berean eta xehetasun guztiekin itzultzea.